

TELEKOMUNIKAZIO EKIPOAK ETA ELEMENTUAK JARTZEARI BURUZKO ORDENANTZA

(ANTENAK)

03.03.27ko Udalbatzarren erabakiaren bidez behin betiko onartua.
30.04.03 ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua (B.A.O. 81 zb.)
(Espta. 01.1020.000001)

I. KAPITULUA.- ATARIKOA

1. Artikulua.- Xedea eta aplikazio-eremua.

1. Ordenantza honen xedea, Egitamu Orokorra aplikatuz eta indarrean dauden legeen esparru barruan, telekomunikazio-ekipoak eta elementuak kokatzeko, jartzeko eta eguneratzeko baldintzak ezartzea da; eta hori eragina ikus-eremuan ahalik txikiena izan dadin.

2. Ordenantza higiezin guztietan izango da aplikagarria, hirigintza-alorreko sailkapena edozein izanik ere, titularitate publikokoa zein pribatukoa izan eta lur ez-eraikigarriak nahiz eraikinak izan, erabilera ere edozein izanik ere.

2. Artikulua.- Araututako instalazioak eta ekipoak.

Ordenantza honek irrati-difusio, telebista, telekomunikazio, telekontrolaren eta abarren uhin elektromagnetikoak hartzeko eta igortzeko era guztietako ekipoak eta instalazioak arautuko ditu.

3. Artikulua.- Sailkapena.

Ordenantzaren aplikaziorako, eta horretarako bakarrik, instalazioak honako talde hauetan sailkatuta geratuko dira:

A Taldea. Telefonía-sareetako instalazioak

Eraikinetako estalkien gaineko base-estazioak, lurrean jarritako euskarri-egituren edo masten gaineko antenak, fatxadetako instalazioak, hiri-hatuetan jarritako antena txikiak, irrati bidezko telefonía finkorako estazioetako irrati bidezko sarrera duten antenak eta konmutazio-zentraletako antenak.

B Taldea. Irrati-difusio eta telebista-ekipoak

Lur eta satelite bidezko telebisten eta soinuaren irrati-difusioaren seinaleak hartzeko antenak, irrati-amateurren estazioetako antenak eta telebisten eta soinuaren irrati-difusioaren zerbitzuak igortzeko, errepikatuzeko eta berriro igortzeko estazioak.

C Taldea. Kable bidezko telekomunikazio-sareak

D Taldea. Entitate bakar batek bakarrik erabiltzeko irratikomunikazioko eta irrati-loturako estazioetako antenak

E Taldea. Defentsarentzat, segurtasun publikoarentzat, babes zibilarentzat eta Administrazio Publikoak zuzenean kudeatutako beste zerbitzu batzuentzako telekomunikazio-ekipoak

II. KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK

4. Artikulua.- Jartzeko baldintza orokorrak.

- 1.- Telekomunikazio-sistemetak elementuek eta ekipoek Ordenantza honetan horietako bakoitzarentzat ezarritako baldintza bereziak bete beharko dituzte. Telekomunikazio-instalazio bat beren-beregi araututa ez dagoenean, Udalaren iritzi arrazoituaren arabera irizpide analogikoak aplikatuko dira.
- 2.- Izaera orokorraz, fatxadetan telekomunikazio-instalazioak jartzea debekatuta geratzen da, antena txikiak eta kanalizazio-sareak izan ezik.
- 3.- Egitamu Orokorrean edozein babes edo artapen-mailatan katalogatutako eraikin eta espazioetan eta Uri Zaharreko Egitamu Bereziaren eremuan baliokideak direnetan, ez da jarriko erabilera publikoko hurreneko espaziotik ikus daitekeen inolako telekomunikazio-instalaziorik.
- 4.- Aurreko kautela alboko eraikinetara ere heda daiteke, Udalaren iritzi arrazoituz jarri nahi duten instalazioak babestutako eraikinaren irudian kalte nabarmena eginez gero.
- 5.- Kasu batean zein bestean, Bilboko Ondarearen Batzordearen txostena beharko da.

5. Artikulua.- Espektroradioelektrikoa erabiltzen duten instalazio guztietan bete beharreko baldintzak.

- 1.- Izaera orokorraz, talde horietako instalazioek honako hauek bete beharko dituzte:
 - a) (*)
 - b) Inguruarekin bateragarriak izango dira eta arkitekturaren ikuspuntutik modu egokian integratuko dira.
- 2.- Gardentasunaren, proportzionaltasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioak zainduz esku hartuko du Udalak alor honetan.
- 3.- Eremu elektromagnetikoen pertsonengan eduki dezaketen eraginari dagokionez, azpiegitura erradioelektrikoetako instalazioek eta funtzionamenduak indarrean dauden arauak bete beharko dituzte, bereziki, herri-jabari erradioelektrikoa babesteko baldintzak, emisio erradioelektrikoentzako murrizketak eta emisio erradioelektrikoak direla eta hartu beharreko osasun-babeserako neurriak ezartzen dituen irailaren 28ko 1066/2001 Errege-dekretuan xedatutakoa, baita irratikomunikazio-zerbitzuen operadoreek azterlan eta ziurtagiri jakin batzuk aurkezteko baldintzak ezartzen dituen urtarrilaren 11ko CTE/23/2002 Agindua edo honen ordez indarrean jar dadin arautegia. Zehatzago honako hauek:

(*)Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salak 06-04-10eko Epaiaren bidez deuseztatutako idatz-zatia

- a) Egoitza-eraikinetako estalkietan estazio erradioelektrikoak jarriz gero, instalazio erradioelektrikoen titularrek, ahal denean, emisio-diagramak eraikinean, terrazan edo teilatupean eraginik ez izateko moduan jarriko dute emisio-sistema.
- b) Estazio erradioelektrikoen kokalekuari, ezaugarriei eta funtzionamendu-baldintzei dagokienez, inguruan, 100 m-ra, espazio sentikortzat jo daitezkeen lekuak (haurtzaindegiak, hezkuntzako eta irakaskuntzako zentroak, osasun-zentroak, parke publikoak, egoitzak edo geriatrikoak) egonez gero, operadoreek horietan dauden eraginak ahalik txikienak direla justifikatu beharko dituzte.
- c) Eskuduna den pertsonal teknikoak egindako azterlanak aurkeztuko dituzte. Azterlan horiek, besteak beste, estazioaren ezaugarri teknikoak, kokalekua eta inguruaren ezaugarriak jasoko dituzte, baita, Zientzia eta Teknologia Ministerioak baimena eman aurretik estazio erradioelektriko bakoitzerako egin behar diren eta indarrean dauden mugekin bat datozen eragin-kalkuluak ere.
- d) hizkian aipatutako azterlanarekin batera eta modu osagarrian, operadoreek seinaleak jartzeko proiektua aurkeztuko dute eta, hala badagokio, hesiena, indarrean dauden emisio-mugak gaindi daitezkeen lekuetara profesionalak ez direnak sar ez daitezzen.

4.- Lizentzia eskatzen duten pertsonak aurreko puntuak betetzen direla egiaztatu beharko dute, baita, orokorrean, indarrean dauden arauak ere; eta hori eskudun Administrazio sektorialaren (Zientzia eta Teknologia Ministerioa) emandako baimena edo agiri baliokidea aurkeztuta.

6. Artikulua.- (*)

7. Artikulua.- Instalazioen kanpoaldeko itxura.

Antenek eta ekipoek ezin izango dute inola ere eduki publizitate-mezuak dituen idazkun edo anagramarik. Jarrita dauden eraikinari loturiko espazio publikotik ikusten badira, kolore neutrokoak izango dira.

8. Artikulua.- Egitamuetako eta proiektuetako dokumentazioa.

Egitamu partzialek, urbanizazio-proiektuek eta hirigintzako planeamenduaren garapenerako bestelako tresnek, baita oin berriko obren proiektuek eta eraikinak osorik zaharberritzeko obren proiektuek ere, indarrean dauden arauekin bat datorren Telekomunikazioen Azpiegitura Erkidearen proiektua jasota eduki beharko dute.

()Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salak 06-04-10eko Epaiaren bidez deuseztatutako artikulua*

9. Artikulua.- (*)

10. Artikulua.- Estalkiko elementu komunetarako sarbideak.

Eraikinaren iraunarazte, artatze eta mantentze-lanak egitera doazen pertsoneri sartzea oztopatzen ez dien moduan egongo dira instalatuta telekomunikazio-ekipoak.

11. Artikulua.- Ekipo-dukiontziak.

Ekipo-dukiontzien honako baldintza hauek beteko dituzte:

- a) telekomunikazio-ekipoen tresneria gordetzeko baino ez dira erabiliko;
- b) bisita egitekoak badira, barrura sartzeko kanpoalderantz zabalduko den ate bat izango dute, gutxienez laurogei (80) x ehun eta laurogeita hamar (190) zentimetrokoa;
- c) Aire girotua edukiz gero, hozte-sistemak erabilera publikoko hurbileneko lekutik ikusten ez diren lekuetan jarriko dira, eta funtzionamendua Ingurumenari buruzko Ordenantzan ezarritakoarekin bat etorriko da;
- d) dukiontzitik hurbil kasuan kasurako eraginkortasun nahikoa duten izaera egokiko itzalgailuak ipiniko dira, eta gutxienez batek 13-A eraginkortasuna izango du; eta
- e) Ingurumenari buruzko Ordenantzan zaratei eta bibrazioei buruz xedatutakoa beteko dute.

12. Artikulua.- Iraunaraztea, artatzea eta kentzea.

1.- Instalazioaren titularra edo emakidaduna den pertsona segurtasun, osasungarritasun eta apaingarritasun-baldintza egokietan edukitzera behartuta egongo da, eta mantentze edo iraunarazte horren ordezkot erantzuleak izango dira instalazioak daudeneko eraikinaren edo luraren jabeak.

2.- Udal zerbitzuek artapen-egoera ezegokia detektatuz gero, lizentziaren titularrei jakinaraziko diete, irregularitasunaren jakinarazpenetik hasitako epe jakin batean dagozkion neurriak har ditzaten. Pertsonentzat zein ondasunentzat arrisku-egoerak egonez gero, neurriak berehala hartuko dira, indarrean dauden arauekin bat etorrita.

3.- Jarduerari behin betiko utziz gero, lizentziaren titularrak irratikomunikazio-ekipoak eta horien elementuak eraisteko eta kentzeko beharrezko jarduketak burutu beharko ditu, horiek jarri aurretiko egoerara lehengoratzeko instalazioaren euskarri izandako lurra, eraikina edo beste.

()Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salak 06-04-10eko Epaiaren bidez deuseztatutako idatz-zatia edo artikulua*

III. KAPITULUA .- A TALDEKOENTZAKO BALDINTZA BEREZIAK: TELEFONIA SAREETAKO INSTALAZIOAK

13. Artikulua.- Eraikinetako estalkien gaineko base estazioak.

1.- Arau orokor gisa, ikus-eremuan eta paisaian egon daitekeen eragina gutxitzeko neurri nahikoak hartuko dira, edonola ere, honako baldintza hauek betez:

- a) Instalazioaren edozein osagairen gutxienezko atzeraemangunea, instalazioa dagoen eraikinaren kanpoaldeko fatxadaren planoarekiko, metro bi eta erdikoa (2,50 m) izango da;
- b) Mastaren edo elementu euskarriaren gehienezko altuera, azken etxebizitzaren sabaiaren forjatuaren gainetik, mastaren ardatzaren eta inklinazioko berrogeita bost graduko (45°) lerro baten gurutzagunetik ateratakoa izango da, eta azken lerro hori azken forjatutik metro bi eta erdira (2,50 m) dagoen lerro horizontal bat eta fatxadaren luzapen bertikala topatzen diren gunetik marratuta egongo da; edonola delarik ere, altuera horrek ez du inoiz gaintutuko azken oinaren sabaiaren forjatuaren gainetik zortzi metro eta erdi (8,50 m);
- c) mastaren edo euskarriari zirkunskribatutako zilindroaren gehienezko diametroa sei hazbetekoa (6") edo zentimetrotan emandako baliokidekoa izango da; eta
- d) euskarriari eta antena guztiei zirkunskribatutako zilindroaren gehienezko diametroa ehun eta hogeitaz (120) zentimetrokoa izango da.

2.- Instalazioari funtzionaltasunaren aldetik loturiko gune edukitzaileak ikus-eremuan egon dadin eragina ahalik txikiena izateko moduan egingo dira, eraikinaren soluzio orokorretan integratzeko ahaleginak eginez eta honako baldintza hauek betez:

- a) jendeak ez du izango horietara sartzerik;
- b) kanpoko lerrokaduretatik gutxienez hiru (3) metrotara egongo dira;
- c) gehienezko altuera hiru (3) metrokoa izango da;
- d) oineko azalera hogeitaz metro karratukoa (20 m²) baino txikiagoa izango da, eta alderik luzeena, gehienez ere, sei (6) metrokoa izango da;
- e) kokalekuak ez du oztopatuko estalkia ikustea iraurarazte, artatze eta mantentze-lanen ondorioetarako; eta
- f) erabilera publikoko espazioetatik ikus baliteke, inguratzailea eraikinarenarekin mimetizatuko da (kolorea, itxura, bolumena eta abar).

14. Artikulua.- Familia bakarreko edo biko etxebizitzaren estalkien gaineko base estazioak.

Familia bakarreko edo biko etxebizitzaren estalkiaren gaineko telefoniako base estazioetako antenak eta bestelako elementuak debekatuta geratzen dira.

15. Artikulua.- Lurrean jarritako euskarri-egituren edo masten gaineko antenak.

1.- Mota honetako Instalazioak hiri-lurrean eta lur urbanizagarrian jartzea debekatuta geratzen da, Egitamu Orokorraren sailkapenaren arabera.

2.- Lur ez-urbanizagarrian baimendu ahalko dira, baldin eta Udalak bultzatutako eta tramitatutako Egitamu Berezi bat onartzen bada. Egitamu horretan sarearen garapen guztia jasota egongo da eta, ingurumen-alorretik zona sentikorretan osorik zein zati bat egonez gero, araturiko moduan aurkeztuko da Ingurumen-inpaktuaren Ebaluaziorako.

3.- Instalazio guztiaren gehienezko altuera hogeita bost (25) metrokoa izango da.

16. Artikulua.- Eraikinetako fatxadetan eta hiri-hatuetan instalazioak jartzeko debekua.

1.- Beren-beregi debekatuta gelditzen da antena hauek eraikinetako fatxadetan eta hiri-hatuetan jartzea.

17. Artikulua.- Irrati bidezko telefonía finkorako estazioetako antenak.

1.- Beren-beregi debekatuta gelditzen dira antena hauek Egitamu Orokorrean edozein babes-mailatakotzat (A, B, C eta D) jotako eraikinetan eta Uri Zaharraren BEEBn babestutakoetan, baita lur ez-urbanizagarrian egon daitezzen kokaleku arkeologikoetan edo antzekoetan ere.

2.- Gainontzeko eraikinetan estalkian jartzea baimenduta geratuko da, honako muga hauek daudela:

- a) ezin izango dira jarri dorretzarretan edo ingurukari maximotik irteten den beste edozein elementutan (igogailuko etxola, irteten den bolumen teknikoa, eta abar);
- b) estalki laua izanez gero, mastaren edo elementu euskarriaren gehienezko altuera, etxebizitzaren azken solairuaren sabaiaren forjatuaren gainetik, mastaren ardatzaren eta inklinazioko berrogeita bost graduko (45°) lerro baten gurutzagunetik ateratakoa izango da, eta azken lerro hori aipatu forjatuaren lerro horizontala eta fatxadaren lerrokaduraren luzapen bertikala topatzen diren gunetik marratuta egongo da; edonola delarik ere, altuera hori gehienez ere lau (4) metrokoa izango da;
- c) estalki inklinatuetan ez dira jarriko fatxada nagusietara isurkia duten faldoietan eta erabilera publikoko hurbileneko espazioetatik ez dira ikusi behar; eta

- d) eraikuntzatik libre dauden lurretan, publikoak zein pribatuak izan, eta familia bakarreko edo biko etxebizitzetan jartzea debekatuta geratzen da.

18. Artikulua.- Konmutazio-zentraletako antenen instalazioak.

Ekipo horien ezaugarri morfologiko eta funtzionalen antzekotasunagatik, kokalekuaren baldintzen arabera, 22. artikuluan xedatutakoa bete beharko ditu instalazioak.

IV. KAPITULUA.- B TALDEKOENTZAKO BALDINTZA BEREZIAK: IRRATI DIFUSIOA ETA TELEBISTA

19. Artikulua.- Lur bidezko telebisten eta soinuaren irrati-difusioaren seinaleak hartzeko antenak.

1.- Mota honetako antenak eraikinetan banaka jartzea debekatuta geratzen da. Antenak batzeko neurriak aztertu beharko dira, baita jabe-elkarte bi edo gehiagoren instalazio kolektiboekin batzeko ere.

2.- Aurreko idatz-zatian adierazitako ondorioetarako, Egitamu Partzialek eta, hala badagokio, Egitamu Bereziek, instalazio kolektiboak batzeari buruzko beren-beregiko aipamena izango dute.

3.- Mota honetako antenak eraikinetako estalkietan bakarrik jarri ahalko dira eta baldintza hauek beteko dituzte:

- a) mastaren ardatzetik kanpoaldeko fatxadaren lerrora gutxienez bost (5) metro egongo dira;
- b) estalki inklinatuetan jarriz gero, ez dira jarriko fatxada nagusietara isurkia duten faldoietan, ezta dorretzarretan edo irteten diren bolumen teknikoetan ere, eta ez dira ikusi behar eraikinari loturiko erabilera publikoko espaziotik; eta
- c) estalki lauetan jarriz gero, ezin izango dira ipini dorretzarretan edo irteten diren bolumen teknikoetan.

20. Artikulua.- Satelite bidezko telebisten eta soinuaren irrati-difusioaren seinaleak hartzeko antenak.

1.- Oin berriko eraikinak izanez gero, burutzapen-proiektuak etxebizitza, bulego eta lokal guztiei zerbitzua emango dien mota honetako antena kolektibo baten instalazioa jasoko du.

2.- Dauden eraikinek, antena hauek batez ere izaera kolektiboa izango dute, jarrita dauden banakako antenak antolamendutik kanpokotzat joko dira eta, hortaz, ezin izango dira berriztatu edo beste batzuk jarri haien ordez, antenak batzera jo behar da eta.

3.- Eraikinetako estalkietan bakarrik jarri ahalko dira eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) estalki lauetan jarriz gero, kanpoaldeko fatxadara gutxienez hiru (3) metro egongo dira eta ezin izango dira ipini dorretzarretan edo irteten diren bolumen teknikoetan; eta
- b) estalki inklinatuetan jarriz gero, ez dira jarriko fatxada nagusietara isurkia duten faldoietan, ezta dorretzarretan edo irteten diren bolumen teknikoetan ere, eta altuerak ez du gaindituko estalkiaren gailurrarena.

4.- Objektiboki instalazioa ezin bada aurreko idatz-zatiko baldintzetara egokitu, antena, irudi arkitektonikoan eta urbanoan eraginik txikiena duen lekuan jarriko da, eta beti erabilera publikoko hurbileneko espaziotik gutxien ikusten den lekuan.

21. Artikulua.- Irrati-amateurren estazioetako antenak.

1.- Eraikinetako estalkietan jarri ahalko dira, 19.3 artikuluan jasotako baldintzekin bat etorrira.

2.- Telekomunikazio-alorrean eskumena duen organoak emandako beharrezko baimena baduela egiaztatu beharko du instalazioaren titularra den pertsonak.

22. Artikulua.- Telebisten eta soinuaren irrati-difusioaren zerbitzuak igortzeko, errepikatzeko eta berriro igortzeko estazioak.

1.- Telebisten eta soinuaren irrati-difusioaren zerbitzuak igortzeko, errepikatzeko eta berriro igortzeko estazioei funtzionaltasunaren aldetik loturiko antenak dagokion Egitamu Berezia onartuta baino ezin izango dira instalatu. Egitamu horretan mota bakoitzaren kokalekuak, kopurua eta ezaugarriak ezarriko dira.

2.- Egitamu Berezi hori onartu bitartean, eraikineko estalki gainean jartzea baimendu daiteke, dagokion jarduerak udal lizentzia badauka, haren altuera gehienez ere zortzi (8) metrokoa bada, eta kokalekua eta ikus-eremuan eduki dezakeen eragina gutxitzeko hartutako neurriak onartzeko modukoak badira.

3.- Aurreko idatz-zatian aurreikusitako baimena behin-behinekoa izango da eta, Egitamu Berezia indarrean sartutakoan, Udalak agintzen duenean titularrak kendu beharko ditu instalazioak. Horregatik kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik ez da egongo.

V. KAPITULUA.- C TALDEKOENTZAKO BALDINTZA BEREZIAK: KABLE BIDEZKO TELEKOMUNIKAZIOAK

23. Artikulua.- Nodoak edukitzeko guneak.

Kable bidezko telekomunikazio-sareen amaierako nodoak edukitzeko guneak sestrapean jarriko dira eta Ingurumenari buruzko Ordenantzan zaratei eta bibrazioei buruz xedatutakoa beteko dute.

VI. KAPITULUA.- D TALDEKOENTZAKO BALDINTZA BEREZIAK:ENTITATE BAKAR BATEK BAKARRIK ERABILTZEKO IRRATIKOMUNIKAZIOKO ETA IRRATI-LOTURAKO ESTAZIOETAKO ANTENAK

24. Artikulua.- Irrati-lotura eta irratikomunikazio pribatuak.

- 1.- Komunikazio pribatukoak diren eta Entitate bakar batentzat diren erabilera horietarako antenak, arlo horretan eskumena duen organoak baimendu beharko ditu.
- 2.- Udalak adierazten duen lekuan instalatuko dira; horrela erabilera publikoko espazioetatik ez dira ikusiko.
- 3.- Salbuespenez, eta azaldutako lekuan ezin direla jarri agiri bidez egiaztatuta, antenak eraikinetako estalkien gainean jarri ahalko dira. Horretarako 22. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte.

VII. KAPITULUA.- E TALDEKOENTZAKO BALDINTZA BEREZIAK: ADMINISTRAZIO PU-BLIKOAK ZUZENEAN KUDEATUTAKO ZERBI- TZUENTZAKO TELEKOMUNIKAZIO EKIPOAK

25. Artikulua.- Zerbitzu publikoetarako telekomunikazio-ekipoak.

- 1.- Mota honetako telekomunikazio-ekipoak planeamenduan adierazitako lurretan eta eraikinetan jarriko dira.
- 2.- Indarrean dagoen planeamenduan ez bada zehazten, Udalaren eta ekipoaren titularra den organismo publikoaren arteko hitzarmenez ezarriko dira kokalekua eta ezaugarri teknikoak.

VIII. KAPITULUA.- LIZENTZIEI BURUZKO ARAUAK

26. Artikulua.- Udal lizentziaren beharra.

1.- Telekomunikazio-ekipoak eta elementuak ipintzeko eta martxan jartzeko, dagokien obra-lizentzia behar da.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen Legean xedatutakoan instalazioa sailkatutzat joz gero, jarduera-lizentzia ere beharrezkoa izango da.

27. Artikulua.- Beste Administrazio batzuen eskumenak.

Lizentziak ebazteko prozedurari buruzko arauak arlo horretan eskumena duten beste Administrazio batzuen eskurantzzen eta hauek eman ditzaketen baimenen kalterik gabe aplikatuko dira.

28. Artikulua.- Dokumentazioa.

1.- Pertsona eskatzaileak, eskabidearekin batera, Hirigintza-lizentziei eta hauen izapideei buruzko Ordenantzan lizentzia bakoitzerako izaera orokorraz eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

2.- Horrez gain, dokumentu hauek ere aurkeztuko ditu:

- a) gaitasunaren ziurtagiri teknikoa; hau da, instalazioaren euskarri den elementuarena.
- b) dokumentazio grafikoa, fotomuntaia barne, eta paisaian ustez edukiko duen eragina ebaluatzea ahalbide dezan idazkia: Argi eta garbi azalduko dira kokalekua, instalazioa finkan non dagoen, finkaren kokalekua, instalatuko den inguruaren azalpena, tamaina, forma, zerezkoa den instalazioa eta beste ezaugarri batzuk; eta
- c) 1:500 eskalan egindako planoak, instalaziotik 100 metroko inguruan dauden beste ekipoak, antenak, base-estazioak, irrati bidezko loturak eta Ordenantzan aurreikusitako era guztietako instalazioak islatzen dituenak.

3.- (*)

4.- Gainera, 5.4 artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe, eskudun Administrazio sektorialak emandako ziurtargiriz honako datu hauek egiaztatuko ditu:

- a) Kokapena: helbidea eta koordenada geografikoak, eta
- b) Antena-mota: izen komertziala, emisio-frekuentzia, benetako potentzia

(*)Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salak 06-04-10eko Epaiaren bidez deuseztatutako idatz-zatia

erradiatua, baita antenaren benetako anplifikazioa ("irabazia").

29. Artikulua.- Prozedurari buruzko arau orokorrak.

Hirigintza-lizentziei eta hauen izapideei buruzko Ordenantzan oharmandakoaren arabera egingo dira lizentzien izapideak, ondorengo artikuluetan ezarritako berezitasunak eta aurreko Kapituluetan zehaztutakoak ere betez.

30. Artikulua.- Ebazteko eskudun organoa.

Alkateak edo, hala badagokio, Hirigintzako Ordezkarik Alkateordeak emango edo ukatuko ditu Ordenantza honen menpeko lizentziak.

31. Artikulua.- Udalaren beste departamentu batzuen esku hartzea.

1.- Instalazioan eragina badu beste Toki Ordenantzaren batek, arlo horretan eskumena duen Udaleko Sailaren edo Zerbitzuaren aldeko txostena beharko da, lizentzia eskatu baino lehen.

2.- Ondorio horietarako departamentu horretara bidaliko da Hirigintza Sailak zabalduko espedientea.

32. Artikulua.- Epeak eta ondorioak.

1.- Eskabideak ebazteko gehienezko epea Hirigintza-lizentziei eta hauen izapideei buruzko Ordenantzan lizentzia-mota bakoitzerako ezarritakoa izango da eta horretan azaldutako ondorioak izango ditu.

2.- Aurreko artikuluen arabera Udalaren beste departamentu baten txostena beharrezkoa denean, ebazteko epea etentzat joko da espedientea horretara bidali eta hurrengo hamabost egunetan. Epe hori erantzuna eman barik iraganez gero, aldeko txostena dagoela ulerturik izapideak egiten jarraituko da.

IX. KAPITULUA.- DIZIPLINA ARAUBIDEA

33. Artikulua.- (*)

34. Artikulua.- (*)

()Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salak 06-04-10eko Epaiaren bidez deuseztatutako artikulua*

XEDAPEN GEHIGARRIA

BAKARRA. Telefonía higikorreko antenen zentsua.

1.- Udalak jarritako telefonía higikorreko antenak jasoko dituen zentsua egingo du. Zentsu horrek bete elementu batzuk ere jasoko ditu; hala nola, tentsio altuko lineak eta nodoak, transformadoreak.

2.- Horretarako, Hirigintza Sailak euren burua eremu elektromagnetikoen eraginpekotzat duten pertsonen arretarako zerbitzuari horri buruz dituen datu guztiak emango dizkio, baita gertatu ahala izaten diren gorabehera eta aldaketa guztien berri ere. Halaber, eskueran jarriko dizkio dagozkion espedienteak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA.- Antolamendutik kanpoko egoera.

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik lizentziarekin jarritako eta ordenantzan ezarritakora egokitzen ez diren telekomunikazio-ekipo eta elementu guztiak antolamendutik kanpokotzat joko dira eta egokitu arte ezin izango dira, ez berritu, ezta zaharraren ordezkari ere.

BIGARRENA.- Pixkanaka-pixkanakako egokipena.

20.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako banakako antenen jabeek horiek kendu eta kolektiboak ipini beharko dituzte, behin Ordenantza indarrean sartu eta hamabi (12) hilabete iraganda, Udalak horrela jokatzeko eskatuz gero.

INDARGABETZEKO XEDAPENA

Inguramenaren Babesari buruzko Ordenantzako 149. eta 150. artikulua indarririk gabe geratzen dira.